

## EUSKAL LETRETAKO JAKINTSUA

Lan honen izenburua berez-berez etorri zait gogora. Izan ere, Lino Akesolok euskal literaturan askotariko emaitza utzi badigu ere, oro har haren izena aipatzean burura datorkiguna horixe da: gizon jakintsua zela, jakintsua batez ere euskal letren eta gure historiaren arloan, baina hor agortu gabe. Hura hil ondoren, *Euskaldunon Egunkariako* 243. zenbakian, 23. orrialdean Joan Mari Lekuonaren eta Patxi Altunaren idazlan bana zetorren. Esaldi hau azpimarratu dugu Joan Mariren idazlanetik: “XX. mendeko gizonik handienetakoia izan da Aita Lino, jakinduria handikoa eta zehatza”. Patxiren testutik hau ateratu dugu: “Denetik idazten zuen, denetik zekien. Mitxelena zenak esan ohi zuen ez zuela bizian ezagutu euskal kulturaren gaietan Aita Lino Akesolok adina zekienik”.

Biografiaren osagarri, haren euskal letretako lanari ekitea dagokit. Aireko txoriaren begirada arinaz izan ezik, nekez har daiteke haren obraren luze-zabala. Sail batzuetara mugatu behar ezinbestean. Airetiko begiradaz eta barrunbetan sartu gabe jardungo dut, baina hiru edo lau tokitan hegoak bildu eta pausatu egingo naiz hurbilagoetik begiratu ahal izateko. Esaterako, hauek begiratuko ditut bereziki: hiztegiak; klasikoen lan batzuetan egindako ikerketak; bere jakinduriaren kutxa handi ezkututik ateratzen zituen gure historiaren puskak eta albiste ezezagun bitxiak; itzulpenei erreparatu nahi diet; azke-

nik, haren idazkietan toki ez hain txikia, ziur asko berak nahi baino handiagoa, hartzen duten eztabaida eta kritika garratzak ez ditut aipatuko, mendeurreneko giro gozoan ozpin-tantak isurtzeko beldurrez.

## **Hiztegi gintza**

Haren lan guztien artean merezimendu handiko eta arnasa luzeko lan bat agertzen da: *Diccionario [...] de Autoridades de la lengua vasca...* (9 1., Bilbao 1976-1989), *Orotariko Euskal Hiztegia* osatu zen arte, euskaltzaleen artean berariazko lekua izan zuena. Aita Linoren hiztegi handia da, Manu Sotak utzitako fitxak oinarritzat harturik, hark burutua. Liburuaren izenburuan agertzen diren gainerako izen guztiak bi hauen maila berean ezartzea ez litzateke zuzena eta egia izango, ez baitzuten aipatzeorik ezer egin; inola ere ez, behintzat, bi egileen maila merezi lukeenik. Argitaratze lanetan Luis Ortegaren laguntza balio-tsua izan zuen. Linok argi eta garbi zuen hainbat urte hiztegi gintzan jardun izan arren, herriaren hiztegiaren ikerketa zehatza egin behar zela. Esandako guztiaren lekuko dira hark idatzitako milaka ohar eta zuzenketa. Bere lanerako erabiltzen zuen hiztegian, 935 orrialdetan ageri dira bere eskuz egin zituen oharrak eta osaketak, batez ere lehen lau liburukietan. Behin honezkero, obra handi hori bere horretan geldituko da, A. Linok ez baitzuen astirik izan bere ohar ugariak sartuz eraberritzeko.

## **Klasikoen lanak**

### *Frai Bartolome Santa Teresa*

Frai Bartolome Santa Teresari buruz hiru idazlan idatzi zituen “Boletín de la R.S. B. de los Amigos del País” aldizkarian: lehenengoan (1968) hura, pertsona gisa eta haren *Plauto Bascongado* aztertzen ditu; Frai Bartolomek Lazkaon profesia egin zuelako berria zalantzan jartzen du; Iruñean eta Tuteran ikasi zuela ere askoz hobeki aztertu beharrekoa dela dio, eta ondo-



*Partaidetako batzuk Udaletxeko atarian*

ren berak lortutako haren bizitzako argibideak ematen ditu: 1835eko abenduan hil zelakoa ere ez du ziurtzat jotzen... Bi urte geroago, haren bizitzari buruzko argibide gehiago dakar-tza; eta haren heriotzari buruz, oker ulerturik, 1836ko urtarri-lean hil zela diosku, urte horretako urtarrileko hilen zerrenda batzuetan ageri baitzen. Gauzak hobeki ikertzen jarraitu zuen, eta 14 urte geroago (1984) beste datu berri batzuen artean, ha-ren heriotzako data zehatza ematen digu: eta lehen, 1968eko idazlanean zalantzan jarri zuena, hots, A. Zabalak emandako data, zuzena zela ziurtatu zuen; beraz Frai Bartolome 1835eko abenduan hil zela, areago oraindik abenduaren 11n hil zela

ziurtzat jo zuen. Ekin eta ekin, profesia egin zuen tokia ere ziurtasun osoz ematen digu: Korellan egin zuen.

### *Pedro Ignazio Barrutia*

Barrutia ez da, berez, klasiko bat, baina bai antzinako teatrogile euskalduna; zorionez, luzaroan ahaztua izan ondoren, 1982az geroztik gure ikertzaileengan interesa piztu zuena. Aita Linok maite izan zuen eta asko idatzi zuen “Acto para la Noche Buena” teatroaren egileaz. Idazki hauetan J.M. San Sebastián (“Latxaga”) idazleak aurkitutako eskuizkribu originala eta haren argitalpen zuzen eta zaindua goraiatzan ditu batez ere. Bide batez, Aramaioko idazle zaharraz atera diren beste argitalpen batzuk ere haren kritikaren galbahe zorrotzetik igitzen dira.

“XVII. mendearen hondarrean jaio zen idazle hau, erdi ahaztua izan ondoren, miretsia eta goraiatua izan da azken aldian, batez ere 1982. urtean haren jaiotzako hirugarren mendeurrena zela eta, aramaioko idazlearen bizitza eta lana aztertuz, argitararen trinko bat burutu zenez gero. Arabako Foru Aldundiaren babespean argitaratu zen obra honetan, lau idazle hauek agertzen dira egile: Joseba Andoni Lakarra, Jon Kortazar, Joan Mari Lekuona eta Jose Mari Vélez de Mendizábal, atariko E. Knörr-ena izanik. Aurretik Gabriel Arestik, haren lanari zeharo ederretsita, ahaleginak egin zituen teatrogile hura euskaldungoaren plazara behin betiko ateratzen. Azkuek egin zuen lehen argitaraldiaren ondoren, berau izan zen bigarren eta hirugarrenak prestatu zituena. Bigarren argitaraldia 1960an Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian eta hirugarrena 1965eko *Auspoa* bilduman, euskal antzerki zaharrak agertzen zituzten zenbaki batean.

Baina Barrutiaren ikertzaileentzat iturririk garbiena eta fida-garriena, Arabako Foru Aldundiaren babespean argitaratu zen aipaturiko obra hori baino geroxeago, 1983.ean, Latxagak Tolosan Lopez-Mendizabal argitaletxean argitara emandakoa da ez-bairik gabe. Honek, ustekabea, aramaioar idazlearen eskuizkribu originala eskuratu ahal izan zuen, eta hartaz tentuz eta



*Karmel aldizkariko idazle ezagunak solasean*

zuhurki baliatuz, irakurleari biderik ziurrena erakusten dio. Barrutiaren bizitza eta lanaren harian, goian aipatzen direnez gain, beste izen batzuk ere aipatu behar genituzke, eta lehen-lehenik eta goi-goian Juan Carlos Guerra, orain arteko argitarapen guztien iturri izan dena, eta gero R.M. Azkue, Barrutiaren lehenengo argitaratzailea. Mitxelenak, Onaindiak, Villasantek..., labur bada ere, lekutxo bat eskaintzen diote literaturaren historian. Dena dela, bere betiko estilo zorrotzean, Lino Akesolo da idazle honen inguruan nori berea ematen jakin duena. Latxagak (Jose Maria San Sebastian) egindako argitarapena gorai patzen du guztien gainerik” (Luis Baraiazarra: Gabriel Jáuregui Uribarren (1895-1945), KS-7, 1995, 171. or.).

*Bernat Dechepare*

Lehen idazle ezagunaren testua eman zigun oraingo grafiara aldatua eta gaztelaniara itzulia (1968). Horrez gainera, Donostian 1980ko ekainaren 27an emandako hitzaldi bati erreparatu diot. “Etxepare laureun urte geroago” du izenburua. *Euskera* 21 (1981) 449-451. Jakin-mina pizten zaigu Etxepareren liburuaz; gaurko estetikaren ikuspegitik haren poesia bizi-bizia, aintzat hartua eta goretsia da. Bere garaian ere hala izan behar zuela dirudi: poezko zirrara eragingo zuela herriarengan eta batez ere euskararen langile eta artista ziren jende hautatuengana. Aita Linorengan ere piztu zen jakin-min hori; horretaz ari da aipaturiko hitzaldi horretan. Eta ondorio honetara iristen da: obra honek ere, beste askok bezala, ez zuela berehalako arrakastarik edo harrera berorik izan. Hasieran hau dio:

“Non gelditu ziren euskarari mundu guzira zabaltzea opa zionaren amesak? Nolako arrera izan ote zuen euskaldunen artean? Zer erantzun asmatu ezinik gaude. (...) Euskalerrriak nolako arrera egin zion nolabait asmatzeko, argi-zirrintatxo bat ere ez zaigu agertzen. Aipamen labur bat edo beste, besterik ez: Lope Martinez Isasti giputzarena bata, eta Oihenart zuberotarrarena bestea. Bion egunetakoa da Sara-Ziburuko idazle-taldea, izen andi mordotxoak osatzen duena, Etxeberri Ziburuko eta Axular andia tartean dirala. Eta badirudi talde onek ez duela Etxepare ezagutu, edo beintzat ez duela onen lana aintzat artu. Sara inguruko talde orrentzat, Etxeberri Ziburukoa izan da Jainkoarekiko gaiak, kristau-gaiak euskal bertsoan leenbikoz erabilli eta landu dituen idazlea.

Ala ere, badakigu Etxepare-ren bertso-puska bat edo beste Euskalerrriko eliz kantuetan gure egunetaraño iraun dutela. Bai Azkuek eta bai Aita Donostiak elkarrengandik naiko urrun dauden errietan entzun eta bildu zituzten: Aezkoan, Saraitsun, Olazagutian eta Bizkaiko Murelagan ere bai. Erriarenak ala Etxepare berarenak? Or dago, noski, auzia. Ori da argitu bearra. Baiña Etxepare-renak balira ere, erri kantariak ez du jakin norenak ziran, eta Etxepare ezezagun gelditu da edonola ere.

Ezezagun an eta emen, Iparraldean eta Egoaldean. Noiz arte? Parisen gordetzen zuten eta duten ale bakarra aurkitu eta argitara zuten arte.

Egun zorioneko gogoangarri ori ez zan gertatu liburuaren irugarren menderarte. Egun ori Etxepare-rentzat berpizte eguna izan da, eta ez irugarren eguneko berpiztea, ez irugarren urtekoa ere, irureun urte geroagokoa baizik”.

Lehen liburu honek izan duen bilakaeraz argitasunak eman ondoren, hartaz egin diren argitalpenen berri ematen digu eta jarraian, haren poesiaz hiru adituk dituzten iritziak azaltzen.



*Akesolo baserria bebealdetik bartuta*

“Manterolak, bere *Cancionero Basco* delako euskal poeten bilduman, Etxepare zarrari leku emanez gainera, Michel-en iritziak bere eginez, ia eder-iritzi osozkoa ematen dio gure leen-idazlearen bertso-lan geienari. Gai batzuetan ez omen da arnas andiko poeta; baiña beste batzuetan, gai ariñetan, maitezkoetan, oso yayoa omen da, guztiz xarmanta, atsegiña, poesiaren eder eta graziduna, askotan biotz beroduna. Teokritoren eta antziñateko eglogalarien xalotasuna, antzea eta antza aurkitzen dizkio gure poetari. Orra Michel-en iritzia, Manterolak berea egin duena”.

Bigarren iritzia Orixerena da. Eta hirugarrena Lafitterena, harenarekin batera lerro artean tartekaturik dakarrena. “Orixek ere ez zuen aurkitzen Etxepare ‘biotzaldi aundietako poeta, baño bai leguna, itz utsik eztuna, jaso (correcto), lenbizikoa ez ezik gaurkoa ere izateko; idaztankera lasterra, ta muinduna du, ebakia eta erraza’. Lafitte jaunarentzat itzez urria baldin bada, Orixerentzat ori ez da pekatu; orri itz utsik, alperreko itzik ez izatea esaten dio. ‘Zathi ederrak baditu’, esaten zuen bestalde Lafitte maixuak berak ere. ‘Baina –egia egiari zor– apez batek segurik egin behar ez bezalako heta-rik ere bai parrasta bat’.

Azken iritzi au, orraitio, ez dezagun uste apez batena bakarririk danik. Stempf eta Michel, ez bata ez bestea, ez ziran apez, baiña iritzi beretsukoak bai. Arxuk ez zituen puska batzuk argitaratu ez frantsesera itzuli eta Michel-ek Arxuk egiñari on iritzi zion. Stempf-ek, berriz, puska berak alemanaera itzultzerakoan, ez zituen badaezpada alemanez jarri, latiñez baizik”...

Haren klasikoen lanetan beste hiru agertzen zaizkigu, aipatu besterik egingo ez ditugunak: Joannes Etcheberriren *Noelak eta kanta espiritual berriak* (1970), testua berrikusiz eta sarrera eta oharra eginez; eta Bernard Gastelluzarren *Eguia Catholicac salvamendu eternalaren eguiteco necesario direnac* (1983). Gregorio Arrueren *Brabanteko Santa Genobebaren bizitza* ere berrikusi zuen, eta haren sarrera idatzi (1987).





*Partaideak Dimako abesbatzari entzuten*

## **Gure historiaren puskak eta albiste bitxiak**

### *Bilboko iru agurlekuak*

Antzinako ohitura batez ari da idazlan polit honetan. Itsasoz nahiz lehorrez Bilbora hurbiltzean eta bertatik alde egitean, lehenengoz eta azkenekoz Begoñako Andre Mariaren santutegia ikusten zeneko tokiei ematen zieten izen hori; toki horietan sartzarakoan nahiz bertatik alde egiterakoan, *Agur Erregina* edo *Salbea* errezatzen zutelako. Itsasoz zebiltzanen *Agurlekua* Bilboko itsasadarraren eskuinaldean Deusturantz goazela dagoen *La Salve* da. Dena dela, ohitura hau, Bilboko leku horretan ez omen zen itsasgizonena soilik, Bilbotar guztiena baizik. Baina lehorretik zetozenentzat ere baziren beste bi gutxienez: bata, Artxandan, Mungia aldetik Bilborantz zihoazenentzat; eta bestea, Basarrate inguruan Bolueta aldetik Santutxurantz igota, Ibaizabal ertzetik zetozenentzat.

Artxandako *Agurlekuaz* hau diosku Lino Akesolok: “Azkue aitak bere *Parnasorako Bidea* liburuan *Agurleku* baten izena eta ango oiturea dakar. Non? *Bermeoko Astodunak* izeneko erdera-euskerazko bertsoetan. Bermeoko astodunak Bilborantza datoz. Mungiatik aurrera, Txorierrin sartuta, Artxanda ganera igon dabenean, ona zer diñoan bertsoak:

Rezan en Agurleku  
leituta musturrak  
y arreglan a su modo  
geroko guzurak;  
juntas y juntos bajan  
Begoñatik bera,  
para entrar en la Villa  
guztiak batera”.

(Karmel 1989-2)

Leku hauen izenak toponimo bihurtu dira. Artxandakoarena Eusebio Maria Azkueren bertsoan gorde da. Basarrate inguru-koaz hau dio Lino Akesolok:

“Leku orretan gaur be orixe gogoratzen deuskun izen bat dago. Ez da auzo izena, ez kale izena be *Azurleku*. Ez ete da *Agurleku*, norbaitek oker aituta, oker irakurrita, sortu dauan izena? Nik alan uste dot. *Azurleku* orri ez deusagu aurkitzen ezelango itxurarik. Artxandakoak eta Boluetatik gorako leku orrek izen bardiña eukelakoan gagoz *Agurleku*.

Eta emen esan bearra daukagu oitura ori santutegi askotako zala, ez bakarrik Begoñako edo Bilbokoa. Santutegi batera joiazan erromesak nonai eukezan olango lekuak, urriñetik elduta euren Santutegia lenengo aldiz begiztetan ebenean gelditu eta lenengo agurra egitekoa. Gogoratu daiguzan Konpostelara joiazan erromesak. Alkarren leian joaten ei ziran Santiagoko eleizea zeñek lenago ikusiko. An amaitzen ei jakezan ekarren bideko neke ta lor guztiak. Leku orri, tontor orri, *Monte del Gozo* esaten eutsoen. Andik zuzentzen eutsoen Jandone Jakoberi aparteko agurra.

Euskalerrian be bada oitura ori gogoratzen dauan beste itz edo izen bat: *Zeiñaleku*. Azkue andiaren iztegian dator, eta Baztanen aurkitu eban itza da. Zer esan nai dau? Santutegi baterako erromesak Santutegia lenengoz eta azkenekoz ikusten ebeneko lekua. Eta ikusiaz batera *Aitearen* eginda, *zeiñatuta* bertatik bialtzen eutsoen euren agurra Santutegiko Andra Mariari edo santuari” (Karmel 1989-2).

*Santiago Bideko euskal kantak* (Karmel 1990-1)

Bide honek euskal literaturan izan duen lekua aztertzen du lehenik. Eta “Etxahun” Pierre Topet erromes ibili zenekoa gogoratzen digu eta haren bertsoetan, erromes bide honi dagokiola, datozen aipamenak.

“Zoritxarrak bein eta barrero jotako gizon orri leku askotan ibilli bearra jazo jakon bere bizian. Ez Santiago bakarrik, Erroma ta Loreto be, erromes joanda, ikusiak zituen.

Etxahunen bertsoetan bi edo iru bider badator Galiziako Santiagoren, bere bertsoetako Saint Jaka edo Jundane Jakaren izena. (...) Bizi bearrak eroanda España aldeetan urte bi egin zituen. Bere anaiarentzat diarduala, onela diño bere bertso baten:

Bi urte ditut Españan pelegri gisa,  
hireganik deuseren ezin ukhenez biziaren billa.

Entzun daiogun beste bertso baten erruki gutxi erakutsi eutsoen bere erriko abadeentzat esaten:

Izan nuzu Loreton, Jakan eta Erroman;  
Praube hura izan da zazpi erresumetan;  
Egun oroz meza entzun bi milla elizetan;  
Barkoxen bezala apezek ez tratatu izan”.

(Karmel 1989-2).

Iparraldeko euskaldunen artean Santiagorako joera beroa izan dela dio eta Haristoy eta Daranatzek nahiko argi jarri eta aitortu dutela hori. Daranatzek bere *Curiosités du Pays Basquen* Santiagoko bideko frantses kanta batzuk, 18. mendean argitaratuak, jaso eta eman zizkigula dio; euskarazkorik aurki-

tzea ez zuela lortu. Baina gero euskarazkoak ere agertu zirela. Esaterako, Aigeru Irigarai izan zela halako kopia batzuen jabe. Haritschelhar jaunak kantu horien iturria aurkitzeko zoriona izan zuela eta Baionako *Musée Basque*-ren aldizkarian haien kopia argitaratu zigula. Han dator kanturik luzeena, baina ez zela guztiz ezezaguna, “Azkue zanak bere euskal kantutegian emon euskula zati bat, bere doinu eta guzti”.

Gai eta albiste aski ezezagun eta interesgarriak ateratzen zituela bere jakinduriaren kutxatik ikusi dugu hona arte, baina ez gara horretan luzatuko. Izenburuak jarriko ditugu soilik:

- *Etimologi billa. Zeanuriko Undurraga eta Olibares.*
- *Toledoko IIIgarren Kontzilioa euskeraz.*
- *Loiolako Santua. Bidez bide eta euskaldun bat.*
- *Înazio deuna eta euskal kultura.*

## Itzulpenak

Vatikanoko II. Kontzilio Ekumenikoaren ondoren, liturgiako eta sakramentuetako errito-liburuak itzuli behar izan zituen batez ere, baina hasierako behin-behineko testuak izan ezik, geroakoak badakigu elkarlanean egin zituztela; izan ere, euskal liturgi itzultzaile taldea laster sortu zen. Honela diogu *Nire Sa-soiko Markina-Xemein* liburuaren 128. orrialdean: “Billboko Elizbarrutian A. Lino Akesolok, lehentxuago Iratzeder-Lertxundi beneditarren lapurterazko Salmoak bizkaierara egokitu eta argitaratu zituanak, ziharduan mezako egunerokoa hemengo euskerara itzultzen. Karmelo Etxenagusia, Mikel Zarate eta abar zituan lagun. Elizbarruti bakoitzean ziharduen talde txiki horreek izango ziran gero sortuko zan Euskal Herri mailako liturgi itzultzaile taldearen hazia”.

Baina geroago egin zuen eta hil zenean eskuizkribuan utzi zigun beste itzulpen bere-bereaz zer edo zer esan nahi nuke: 1998an *KARMELDAR TERESIARREN ORDENAKO ORDUEN LITURGIA* liburu-



*Ekintza akademikoaren beste une bat*

ruak ikusi zuen argia “Karmel Lekukoak” bilduman. Obra hau itzultzea A. Bingen Batizen eskuetan utzi zuen Karmeldarren Probintzialak. Hark bukatua zuenean, A. Lino Akesolori eman zioten zuzendu eta orraztu zezan. Hala egin zuen zatirik gehienetan, baina irakurgaiak –liturgi ordu horren muina– zuzendu eta orraztu ez eze, goitik behera berri-berriak egin zituen.

Baina hark, gure artetik joan zenean, eskuz idatziriko pape-retan utzi zigun bere lana. Hainbeste zuzenketa ageri ziren le-rrero gainean, orri ertzean, edozein tartetan. Bistan dago behin-behineko idazketa eta beretzat egina zela. Orduen Liturgiako irakurgai hauek idazkera zabarrez, zirrimarra ulergaitzez egi-nak daude, geroago idazmakinaz garbian kopiatzeko asmotan. Heriotzak hartu zuenean, horrelaxe geratuko ziren haren gela-ko txokoren batean. Luzaro lo egon ondoren, norbaitek jaso zituen. Ez bakarrik jaso; baita ordenagailuan idatzi ere kontuz-

kontuz, ulertzen ez zuena ondoren etorriko zen zuzentzaile baten esku utzirik. Horrela etorri ziren, bai ordenagailuan jaso eta bai Linoren eskuizkribuak gure eskuetara. Lehen idazketan tentuz jokatu beharra izan bazen, bigarren honetan gehiago oraindik, behin betiko orrazketa baitzen... Astiro, kontuz eta zorrotz aztertu behar zen, testua guztiz finkatzeko: ordenagailukoa eta Linoren paperak erkatu, parekatu, ordenagailuko zenbait zati zuzendu eta berrinterpretatu, originalaren argitan...

Horrela, egiaztatu genuen lehendik ere bagenekiena: itzulpen-lanean benetako maisua genuela Lino Akesolo.

Prosaz egindakoen artean hauek aipatuko ditugu: gaztetan (1930) itzulitako Cervantesen *Agure kezkatia*. S. Teresaren *Onbidea* 1963an (Aita Santi Onaindiarekin batera egindako itzulpena). Hainbat urte geroago hagiografiako eta bestelako hainbat liburu itzuli zituen; esaterako, D. Fernández de Mendiolak idatzitako liburuxka: *Aita Aureliano karmeldarra (1887-1963)* (Gasteiz, 1983, 59 or.); Manuel Fuentesek idatzitako beste liburuxka bat: *Jaungoikoak Beretzat Gura Nau. Domingo iturrate Zorionduna, Irukoiztarra* (Bilbo, 1983, 84 or.). Edota S. Joan Gurutzekoaren *Karmel mendira Igoera*, eta *Gau Iluna*, etab.

Linok gaitasun aparta erakutsi zuen bertsoak euskarara itzultzean. Liturgi testuetatik 31 olerki edo bertsozko lan itzuli zituen, gehienak latinetik. Baina batez ere gaztelaniatik egin ditu olerki edo bertsoen itzulpenak; hona adibide batzuk: Santa Teresa Avilakoaren Zeruan det nik bizia (1951), *Arin, artzaiak!* (1952); Alfredo Gómez Jaime, Jorge Isaac, L. C. Lopezen olerki batzuk (1967), Kolonbiako olerkari batzuen lanak (1968), M. Unamunorenak (1970). Eta batez ere S. Joan Gurutzekoaren olerkirik gorenak itzulpenak. Erromantzeak izan ezik, gainerako guztiak itzuli zituen eta 1990-1992 urteetan argitaratu ziren.

*Luis Baraiazarra Txertudi*